



Europako Erregio Batzordea eztabaidan

Maastrichteko gailurrean sortu zen Europako Erregioen Batzordea ez da inoiz euskal nazionalismoaren gogoko izan, ez delako bere oinarriko eskaerak ere asetzeko modukoa izan. Felipe Gonzalezek Espainiari batzorde horretan dagozkion 21 ordezkariak

elkarte autonomo eta udalen artean banatzeko asmoa agertu zuenetik, bertan behera jausi dira Erregioen Batzordeari begira EAJk bereziki zituen asmoak. Madrilek jarritako mugetara egokitu behar izan ditu bere eskakizunak: hasiera batean EAetik bi or-

dezkarri lortzeko esperantza zuen, bat baino ez dio ordea eskaini Gobernuak; udalen presentzia onartuko dela ikusita berriz, Eudel-eko ordezkari bat negoziatzen saiatuko da, nahiz eta Erregioen Batzordean udaletako ordezkariak egotearen kontrako agertu den.

Europako ateak estuak dira erregioentzat

Estatuek finkatutako irizpideetara mugatu behar izan dute nazionalismoen asmoek

PANTXIKE AGIRRE / DONOSTIA

Orain urtebete onartu zuten Maastrichten Europako Komunitateko estatuak Erregioen Batzordea sortzea. Abiatu datorren uztailean europar ministroek egingo duten gailurrean abia liteke, ordurako Erresuma Batuak eta Danimarkak Ituna berretsi badute behintzat. Aholku batzordea izateaz gain, erregioetako eta agintaritzak lokaletako ordezkariak osatuko dute.

Estatu bakoitzak zenbat ordezkari izango dituen Erregioen Batzordean finkatua dago Maastrichteko Itunean, eta gobernu bakoitzaren esku dago orain horien hautaketa. Espainiak erabakitzeke ditu bere 21 ordezkariak eta eztabaida bizi-bizian dago orain elkarte autonomoen, udalen eta Gobernuaren artean.

Izan ere, Europako Erregioen Batzarrak (ARE) erregioetako ordezkariak soilik osatu behar dutela aipatu batzordea uste du, eta hala eskatu diote Europako Komunitateko estatuak. Ordezkaritza lokala Estatu batek maila erregionalik ez duenean soilik onartu behar dela defenditu du AREk.

Ez dute interpretazio bera egin zenbait estatuak. Espainiak eta Alemaniak —Maastrichten Erregioen Batzordea sortzeko proposamena egin zuten bi Gobernuak— autonomiekin (Espainiaren kasuan) eta landerrekin (Alemaniaren kasuan) batera udalak ere sartzearen aldeko apustua egin dute.

17/4 formula da Estatu espainiarreko elkarte autonomo gehienek onatzen emango luketena, hau da, autonomia bakoitzak ordezkari bat izatea, eta gainontzeko laurak udalen artean banatzea. Aukera horren kontra agertu zaizkio EAeko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak eta Kataluniako, Juan Manuel Egiagarai Administrazio Publikoetako ministroari.

EAJ-REN ASMOEK PORROT Erregioen Batzordera autonomiak soilik joatea izan da hauen eskakizuna, AREk defenditu duenaren ildotik. EAJ gainera, elkarte historikoek bi lortuko zituztelako asmoarekin abiatu zen eztabaida honetan. Oso bestelako irizpideekin jokatzeko ari da ordea



Juan Cruz Alli, Jose Antonio Ardanza eta Jean Tavernier Europako erregioen bilera batean. ATLANTICA

Gobernuak, eta udalen eskakizunak aintzat hartzeaz gain, autonomiekiko parekatzea zilegi litzatekeela adierazten ari da. Honela, PSOEek agintea duen elkar-teei ere presio egiten ari da.

Gobernuaren jarrera ikusita, beren jarrerak baldintza berrietara egokitzen ari dira Ardanza-ren eta Pujolen gobernuak. Katalanak malguago agertu dira azkeneko negoziaketetan eta 17/4 formula onartuko luketela esan dute. Hori dela eta Iñaki Anasagasti EAJko diputatuak Jordi Pujol Generalitateko presidentea kritikatu duen bitartean, Jaurlaritza ez dago okasioa galtzeko prest eta Eudel-ek (Euskal Udalen Elkarte) ordezkarietara lor dezaten saiatuko da.

«Azkenean edozein gauza onartzea» leporatu die Anasagastik nazionalista katalanei. «Ulertezina da Pujolen jarrera, kontuan izanda AREko lehen-dakaria dela orain», adierazi du.

Ardanzaren Kanpo Ekintzarako Idazkaritzan, ordea, ez dira hain kritikoak Pujolen jarrerarekin: «Pujolek apustua egin du Batzordea lanean hastearen alde orduan erakusteko erregioen partaidetza funtsezkoa dela eta ez dela logikoa udalekin nahastea eta 1996an aldaketa eskatzea».

1996-RA BEGIRA ZER Erregioen Batzordea nazio eta erregioen ordezkarietara izatetik urrun dagoela adierazi dio EGUNKARIARI Iñaki Anasagastik. Iritzi bera azaldu dute Karmelo

ERREGIOEN BATZORDEA	
MAASTRICHTEN ONARTUA	ARE-REN ESKAKIZUNAK
<ul style="list-style-type: none"> Erregio eta agintaritzak lokaletako ordezkariak osatua Estatuen proposamenaren arabera, Kontseiluak aho batez izendatuko dituzte partaideak Erregioen Batzordeak berezko interes erregionalak jokoan daudela uste duenean bere iritzia eman dezake Ez die erregioei Kontseiluan erabakiak errekurrizko gaitasunik ematen 	<ul style="list-style-type: none"> Erregioetako ordezkariak soilik osatua Erregioek hautatuko dituzte beren ordezkariak Gobernu erregionalak Ministro Kontseiluan parte hartzea bere kompetentzietatik dagokionean Kontseiluaren erabakiak errekurrizko gaitasuna erregioentzat

Landa HBko eurodiputatuak eta Joseba Azkarraga EAko Madrileko diputatuak. Anasagasti hala ere, 1996ra begira dago, orduan batzordea aldatzerik izango den ustean: «Autonomientzako soilik izango den erakunde bat, eta udalantzako beste bat sortzeko aukera egongo da orduan».

«Ez orain eta ez 96an» adierazi du Joseba Azkarragak Erregioen Batzordetik Europar Euskal Herriarentzat protagonismo bide bat zabalduko ote den galdetzerakoan. «Berezko presentzia izan behar dute Estatu elkarteek Europar eta hori ez da lortzen batzordearekin, irtenbide txarra da gainera, nolabaiteko saskinahaskia», uste du. Hala ere, ezin zaiola helburu horri uko egin

azaldu du, «egin behar duguna estatuak erabakitzen duten formulak ezetz esatea da».

Antzeko iritzia azaldu du Karmelo Landak: «Atzera egiten duen erregionalismoan sartzea litzateke, nazio eskubideak desitxuratzeko erabili dutelako estatuak Erregioen Batzordea». 1996ra begira, karkoa ez dela Erregioen Batzordea aldatzeko aukera izango den edo ez dio Landak, «arazoa Maastricht bera delako». «Ezin dena da —azaldu du— Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatzeko orain dugun aukera galdu etorkizuneko aukerak aipatuz».

Kritika egin dio Landak EAJri, Erregioen Batzordearen Eudel sartzeko prest agertzeagatik,

«1996an Erregioen Batzordea aldatu eta autonomien ordezkarietara hutsa lortzeko aukera izango da».

IÑAKI ANASAGASTI (EAJ)

«Europako Erregioen Batzordeak ez orain, ez 1996an ez du guretzako biderik zabalduko».

JOSEBA AZKARRAGA (EA)

«Erregioen Batzordea onartzea maldan behera joatea da, Estatuaren irizpideak onartzen direlako».

KARMELO LANDA (HB)

«Lehen onartzen ez zuen muga onartu du aurpegia garbitu nahian». Aipatu batzordean erregioak eta agintaritzak lokala onartzea «maldan behera joatea» dela uste du, «Estatuak markatzen dituzten irizpideak onartzea delako». HBko europarlamentariaren ustez, «sakoneko helburu politikoa» da aztertu behar dena. «Helburu hori da Europa osoan eta EKren barruan ere estaturik gabeko nazioek gero eta gehiago errebindikatzen ditugun eskubide politikoak».

GAINONTZEKO ESTATUEN HAUTAKETA

Europako Komunitateko gainontzeko estatuaren ere aurrera doa Erregioen Batzorderako ordezkariak erabakitzearen prozesua. Alemaniaren Gobernuaren eta landerren artean ere eztabaida zabala gertatzen ari da. Frantziaren kasuan, departamentu, erregio eta udalen artean banatuko dituzte dagozkion 24 ordezkariak. Heren bat izango du bakoitzak.

Italiak komunitateko ordezkariak bidaliko ditu Erregioen Batzordera eta konderrietakoak Danimarkak eta Erresuma Batuak, erregiorik ez dutelako.